PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA. HORREN BIDEZ SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA-REN ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO ETA KONTABILITATEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ, ARAUTUKO DA

1. XEDEA

Kontratuaren xedea da SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SArentzako (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea) administrazioko eta kontabilitateko kudeaketa zerbitzuak ematea, Preskripzio Teknikoen Agirian, Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta bere Karatulan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratuaren CPV kodea:

- 79200000-6 (Kontabilitate, auditoretza eta zerga zerbitzuak)

Testuinguru horretan, funtsezkoa da prestazioa berehalako erantzuna bermatzen duten pertsonek gauzatzea.

2. ZERBITZUAK DESKRIBATZEA ETA EGIKARITZEA

Orientazio gisa eta mugarik ezarri gabe, lizitazio honek barne hartzen du administrazio eta kontabilitate kudeaketako lan hauek ematea:

2.1. Administrazioko eta kontabilitateko kudeaketa zerbitzuak

- Kontabilitate itxiera hilero gainbegiratzea eta egiteke dauden itxiera idazpenen proposamena egitea, hala badagokio.
- Kontabilitateko funtzionamenduari buruzko arauak eta irizpideak prestatzea.
- Kontabilitatearen inguruko aholkularitza, kontabilitateko zalantzak argitzea.
- Kontabilitate prozesuen optimizazioaren inguruko aholkularitza.
- Kontabilitateko eta kudeaketako programa parametrizatzeko eta optimizatzeko aholkularitza.
- Urteko kontabilitate itxiera prestatzea.
- Sozietatearen auditorian konpainiari babesa ematea.
- Sozietateari Ministerioarekin egiteko kudeaketetan laguntzea, eta erakunde horiek eskatutako txostenak egitea.
- Kontabilitateko liburu ofizialak legeztatzea.
- Urteko kontuak prestatzea eta Merkataritza Erregistroan gordailutzea.

- Zuzendaritzari aurrekontuak egiten, jarraipena egiten eta kontrolatzen laguntzea.
- Kontabilitateko informazioa ematea eta auditoretzetan laguntza eta aholkularitza lanak egitea, bai urtekoen bai beste erakunde ofizial batzuek egin ditzaketenen inguruan.

2.2. Fiskalitatea eta zergak:

- Sozietateak egin behar dituen aldizkako aitorpenak egitea.
- Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko aldizkako eta urteko likidazioak.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) buruzko aldizkako eta urteko likidazioak.
- Komunitate barruko eragiketen aldizkako aitorpenak.
- Hirugarrenekin egindako operazioen urteko aitorpena.
- Sozietateen gaineko Zerga (SZ) prestatzea.
- Arlo hau behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren kudeaketa operatibo guztiak eta ziurtagiriak eskatzea.
- Eta funtzio hau behar bezala kudeatzeko behar diren gainerako guztiak.

2.3. Kudeaketa tresna:

Kontratuaren xedearen barruan sartuko da kontratistak tresna, software eta/edo aplikazio informatiko bat atxikitzea, SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMO SA enpresatik sarrera eta erabilera bermatzeko, honako funtzionalitate eta/edo aukera hauekin:

- Erakunde kontratatzaileak internet duen edozein gailutik online sarbidea edukitzea. Erakunde kontratatzaileak eta kontratistak haren gainean denbora errealean lan egiteko eta prozesuak partekatu ahal izateko aukera eman beharko du.
- Kontabilitate analitikoa, gutxienez 2 maila analitikorekin.
- Aurrekontuaren kontrola.
- Sail bakoitzerako ad-hoc txostenak sortzeko aukera.
- Jasotako fakturekin lotu ahal izateko erosketa eskaerak sortzeko aukera.
- Jaulkitako fakturazioaren kudeaketa.
- Dokumentu kudeatzailea: jasotako fakturen pdf-ak haren kontabilitateko oharrera lotzea.
- Ordaintzeko/kobratzeko sortak sortzea, sorten mugimenduak automatikoki kontabilizatzea.
- Zergak: BEZaren hainbanaketa desberdinak sortzeko aukera, BEZa sailaren arabera kendu ahal izateko.

- Aktibo finkoak: Aktibo finkoak sortzea, amortizazio automatikoa eta kapitaleko dirulaguntzari automatikoki egoztea, halakorik badu.
- Gastuen eta sarreren periodifikazioa.
- Txostenak sortzea:
    - Finantzakoak: Emaitzen kontua, balantzea, baturak eta saldoak
    - Ordaintzeke dauden ordainketen eta hileroko ordainketen txostena
    - Mugaeguneratuta dauden kobrantzei buruzko txostena
    - Fakturazio bolumenaren txostena
    - Jasotako eta jaulkitako faktura liburuak
    - Diruzaintzako posizioa
    - Aktibo finkoen txostena